PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA, LAGUNTZA TEKNIKO BAT KONTRATATZEKO, PROIEKTU BAT DISEINATU ETA GARATZEARREN, ZEINAK AREAGOTUKO BAITU ZAINKETEN GIZARTE BALIOA, ZAINKETEI BURUZKO SENTSIBILIZAZIOAREN ETA EZAGUTZA-HOBEKUNTZAREN BIDEZ, ETA, HORREKIN BATERA, ERRAZTUKO BAITU AURRERA EGITEA ZAINKETEN DEMOKRATIZAZIOAN ETA BIDEZKO BIRBANAKETAN, GENERO ETA ERANTZUNKIDETASUN IKUSPEGITIK, GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOAN.

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN DE UNA ASISTENCIA TÉCNICA DIRIGIDA A DISEÑAR Y DESARROLLAR UN PROYECTO QUE AUMENTE EL VALOR SOCIAL DE LOS CUIDADOS A TRAVÉS DE LA SENSIBILIZACIÓN Y LA MEJORA DEL CONOCIMIENTO SOBRE LOS CUIDADOS Y CON ELLO, FACILITE AVANZAR EN LA DEMOCRATIZACIÓN Y REDISTRIBUCIÓN JUSTA DE LOS CUIDADOS DESDE LA PERSPECTIVA DE GÉNERO Y DE CORRESPONSABILIDAD EN EL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

I. SARRERA

Gipuzkoan, eta berdin Euskadi osoan eta mendebaldeko herrialde gehienetan, azken hamarkadetan, areagotu egin dira herritarren osasun eta gizarte zainketen premiak, elkarren artean lotutako hainbat faktoreren ondorioz, hala nola bizi-itxaropena igotzea, jaiotza-tasa jaistea, eta biztanleria zahartzea, baita emakumeek lan merkatuan parte-hartze handiagoa izatea, etxeetan bizikidetza-modu berriak egotea, eta familia-aniztasuna handiagoa izatea, beste alderdi batzuen artean.

Faktore horiek guztiak erronka bat dira politika publikoentzat, baldintzatzen baitute zainketak emateko modu tradizionala –gehienbat emakumeek hornituak eta etxe barrukoak–; beraz, zalantzak sortzen dituzte zainketa horiek beren gain hartu ahal izango dituzten pertsonen etorkizuneko erabilgarritasunari buruz. Gainera, ez dirudi bideragarria denik zainketa-premiak konpondu izan diren modu tradizionala; aitzitik, emakumeen eta gizonen berdintasunaren ikuspegitik, ez da desiragarria, zeren eta funtsezko elementu bat baita, azaltzen duena zer-nolako zailtasunak dituzten emakumeek autonomia ekonomikoa lortzeko, eta baldintzatzen duena haien gaitasuna protagonista izan nahi duten bizi-proiektuei buruzko erabakiak hartzeko.

Horregatik guztiagatik, gero eta kezka handiagoa dago etorkizun hurbilean zainketa-premiei gizarte

I. INTRODUCCIÓN

En Gipuzkoa, al igual que en el conjunto de Euskadi y en la mayoría de los países occidentales, en las últimas décadas, han aumentado las necesidades de cuidados sanitarios y sociales de la población debido a diversos factores interrelacionados entre sí, entre los que se encuentran el aumento de la esperanza de vida, el descenso de la natalidad y el envejecimiento de la población, así como la mayor participación de las mujeres en el mercado laboral, las nuevas formas de convivencia en los hogares y la mayor diversidad familiar, entre otros aspectos.

Todos estos factores suponen un reto para las políticas públicas, ya que condicionan la forma tradicional de proporcionar cuidados -mayoritariamente provistos por las mujeres y dentro del hogar- y, por tanto, generan dudas respecto a la disponibilidad futura de las personas que van a poder asumir dichos cuidados. Además, la forma tradicional en la que se han venido resolviendo las necesidades de cuidados no sólo no parece viable, sino que, desde la perspectiva de la igualdad de mujeres y hombres, no es deseable, porque se constituye en un elemento central que explica las dificultades de las mujeres para alcanzar la autonomía económica y que condiciona su capacidad para tomar decisiones sobre los proyectos vitales que desean protagonizar.

Por todo ello, cada vez es mayor la preocupación por la manera en la que se podrá dar una

erantzun bat emateko moduaz, eta, era berean, zainketa-premia horiei erantzuteko modu berriek genero-rolak ez indartzeaz, eta, horren ondorioz, emakumeen bizitzan eragin negatiboa ez izateaz.

Gainera, zainketak sozialki eta modu bidezkoan berrantolatzeko presionatzen ari diren aipatutako faktoreez gain, egia da COVID-19ak eragindako osasun eta gizarte arloko salbuespenezko egoerak agerian utzi duela gure zainketa-sistemaren hauskortasuna, eta, aldi berean, ikusgaitasuna eman eta erakutsi duela zainketek funtsezko rola dutela bizitzari eusteko, eta ugalketa ekonomiko eta sozialean.

Testuinguru horretan, gero eta gehiago dira zainketen gizarte antolamendua aldatu beharra iradokitzen duten ahotsak, helburua izanda, lehenik eta behin, zainketak birbanatu edo demokratizatzea zainketa horiek ematean inplikatu beharko liratekeen eragile guztien artean –etxeak edo familia, ordaindu gabe, eta, horren barruan, emakumeen eta gizonen, erakundeen, merkatuaren eta komunitatearen artean–; eta, bigarrenik, hornidura eta hornidura-baldintza nahikoak eta egokiak bermatzea, bai zainketak jasotzen dituzten pertsonentzat, bai zainketak asetzen dituztenentzat.

Horregatik guztiagatik, proiektu honen helburua da aurrera egitea zainketen demokratizazioan eta bidezko erantzunkidetasunean, genero ikuspegitik, lehentasuna emanez zainketen gizarte balioaren ikusgaitasunari, zainketa horiei buruzko sentsibilizazioaren eta eta garatzen ari diren esperientziei buruzko ezagutza-hobekuntzaren bidez, bereziki komunitate eremuan, berdintasun ikuspegia txertatuz. Era horretan, osatu eta aberastu nahi dira, orobat, genero ikuspegitik, eremu horretan erakundeak dagoeneko egiten ari diren ahaleginak, bai Foru Aldundia, hainbat ekimenen bidez, hala nola lurralde osorako zainketen tokiko ekosistemak bultzatuz, eta Etorkizuna Eraikiz foru ekimenaren esparruan garatutako programak; bai tokiko erakundeak eta gizarte kolektiboak.

respuesta social a las necesidades de cuidados en un futuro próximo. Y, también, porque las nuevas formas de responder a estas necesidades de cuidados no refuercen los roles de género y con ello, impacten negativamente en la vida de las mujeres.

Además, más allá de los factores enumerados que están presionando para reorganizar de manera socialmente justa los cuidados, lo cierto es que la excepcionalidad sanitaria y social provocada por la covid-19 ha puesto de manifiesto la fragilidad de nuestro sistema de cuidados, al tiempo que ha dado visibilidad y mostrado el rol esencial que tienen los cuidados en el sostenimiento de la vida y en la reproducción económica y social.

Es en este contexto en el que crecen las voces que apuntan a la necesidad de un cambio en la organización social de los cuidados que pase, en primer lugar, por redistribuir o democratizar los cuidados entre todos los agentes que deberían implicarse en la provisión de estos -los hogares o la familia de forma no remunerada y dentro de ella entre mujeres y hombres, las instituciones, el mercado y la comunidad-. Y, en segundo lugar, por garantizar una provisión y unas condiciones de provisión suficientes y satisfactorias tanto para las personas que reciben cuidados como para aquellas que los satisfacen.

Por todo ello, este proyecto busca avanzar en la democratización y corresponsabilidad justa de los cuidados desde la perspectiva de género, dando prioridad a la visibilización del valor social de los cuidados, a través de la sensibilización y la mejora del conocimiento sobre estos y sobre las distintas experiencias que se están desarrollando, muy especialmente, en el ámbito comunitario incorporando la perspectiva de igualdad. Y, de esta forma, se pretende, también, complementar y enriquecer, desde la perspectiva de género, los esfuerzos que ya vienen haciéndose en este ámbito tanto por parte de la Diputación Foral, a través de distintas iniciativas, tales como el impulso de los ecosistemas locales de cuidados para el conjunto del territorio o los programas desarrollados en el marco de la iniciativa foral

Etorkizuna Eraikiz, como por parte de las entidades locales y colectivos sociales.

Hala ere, proiektu honen jatorria kokatu behar da 2021eko aurrekontu irekien esparruan, eta gizartea eraldatzeko proiektu baten onespenean, zeinaren helburua baita zainketen gizarte balioari buruzko gizarte sentsibilizazioa areagotzea, eta horren aurreko jarrerak eta praktikak hobetzea. Era berean, jarraipena ematen dio aurreko fase batean egindako lanari, zeinean, alde batetik, aztertu baitira Gipuzkoako Lurralde Historikoan zainketak ematearen gizarte antolaketa eta horrek emakumeengan eta emakumeen eta gizonen berdintasunean duen eragina; eta, bestetik, erronkak identifikatu baitira; bereziki, erronka komunak, mendetasuneko zainketen eremuan eta haurren nahiz nerabeen zainketen eta heziketaren eremuan, eta erronka espezifikoak, adingabeei eta mendetasun egoeran dauden adinekoei dagokienez.

El origen de este proyecto, sin embargo, hay que situarlo en el marco de los presupuestos abiertos 2021 y en la aprobación de un proyecto de transformación social dirigido a aumentar la sensibilización social sobre el valor social de los cuidados y mejorar las actitudes y prácticas frente al mismo. Asimismo, viene a dar continuidad al trabajo realizado en una fase previa en la que, por un lado, se ha realizado un análisis de la organización social de la provisión de los cuidados en el Territorio Histórico de Gipuzkoa y su impacto sobre las mujeres y la igualdad de mujeres y hombres. Y, por otro, se han identificado los retos, en particular, los retos comunes en el ámbito de los cuidados a la dependencia y los cuidados y la crianza de las niñas, niños y adolescentes y los retos específicos en relación con menores y con personas mayores en situación de dependencia.

Proiektu honetan jasotako jarduketek sorburu dituzte, hain zuzen ere, identifikatutako lan ildo horietako batzuk; zehazki, ikerketarekin, sentsibilizazioarekin eta prestakuntzarekin identifikatutakoak eta lotutakoak. Era berean, lan ildo horiek lehenetsi dira, kontuan hartuta, bereziki, Foru Aldundiak zein eremuren gainean dituen eskumen propioak, eta horien garapenak zer-nolako potentzialtasuna duen lankidetzak ezartzeko, foru eta toki eremuen artean, bai eta Gipuzkoan erakunde eta elkarte mailan berdintasun arloan dauden partaidetza eta elkarrizketarako espazioekin ere.

Las actuaciones contempladas en este proyecto se derivan precisamente de algunas de esas líneas de trabajo identificadas y vinculadas, concretamente, con la investigación, la sensibilización y la formación. Así mismo, estas líneas de trabajo han sido priorizadas teniendo en cuenta especialmente los ámbitos sobre los que la Diputación Foral tiene competencias propias y la potencialidad que su desarrollo tiene para establecer colaboraciones entre el ámbito foral y local, así como con los espacios de participación e interlocución en materia de igualdad existentes a nivel institucional y asociativo en Gipuzkoa.

Proiektu honen helburu zehatza, gainera, lerrokatzen da eta bat dator nazioartean emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko adostutako estrategiekin, hala nola Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agendarekin, eta, bereziki, haren 5.4 helburuarekin: "Ordaindu gabeko zainketako eta etxeko lanak aintzat hartzea eta baloratzea, zerbitzu publikoak emanez, azpiegiturez hornituz eta gizarte babeseko politikak sortuz, bai eta etxean eta familian erantzukizuna sustatuz ere, herrialde bakoitzean dagokionaren arabera".

La finalidad explicitada que persigue este proyecto, además, se alinea y se suma a las estrategias acordadas a nivel internacional para lograr la igualdad de mujeres y hombres como la Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible de Naciones Unidas y, en particular, con su objetivo 5.4: "Reconocer y valorar los cuidados no remunerados y el trabajo doméstico no remunerado mediante la prestación de servicios públicos, la provisión de infraestructuras y la formulación de políticas de protección social, así como mediante la promoción de la responsabilidad compartida en el hogar y la

familia, según proceda en cada país".

Bat dator, orobat, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko esparru autonomikoa betetzearekin; bereziki, hau betetzearekin: 1/2022 Legeko IV. eta VI. kapituluetan jasotako artikulu berriak (1/2022 Legea, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egitekoa), zeintzuk baitira lanari buruzkoa eta bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren kontziliazio erantzunkideari buruzkoa.

También, con el cumplimiento del marco autonómico en materia de igualdad de mujeres y hombres. En particular, el cumplimiento del nuevo articulado recogido en los capítulos IV y VI de la Ley 1/2022, de 3 de marzo, de segunda modificación de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres, relativos al Trabajo y a la Conciliación corresponsable de la vida personal, familiar y laboral.

Azkenik, proiektu honen helburuek 2/2015 Foru Arauan jasotako lege-aginduak garatuko lituzkete (2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako, Gipuzkoako Lurralde Historikoan); zehazki, IV. kapituluari lotutakoak, zeina baita berdintasuna sustatzeari buruzkoa, zainketa duinen eta guztientzakoen eredu sozial baterantz jotzeko, non ezartzen den ezen, gizarte politikaren esparruan funtzioak eta eskumenak esleitzen zaizkion Foru Aldundiko Departamentuak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak, neurri hauetako batzuk hartuko dituztela, besteak beste: ikuspegi feministak oinarri gisa hartuta, eztabaidak egitea eta proposamenak osatzea, Gipuzkoarako zainketa duinen eredu bat sustatzeko; pertsona guztien zainketak jasotzeko eskubidea sustatzea, ziurtatuz zainketak jasotzen dituzten pertsonen autonomia sustatzen dela, eta neurriak hartzen direla emakumeek eutsitako familia barruko zainketa-ereduak ez birsortzea lehenesten dutenak; eta zaintzaile ez-profesionalek zainketa-lanak egiteko orduan dituzten baldintzak erraztu eta duintzea, lagunduz familiako zaintzaileen ongizateari eta eskaerei, eta sustatuz etxeetan zainketa-lanak modu bidezkoago batean banatzen direla.

Finalmente, los objetivos de este proyecto vendrían a desarrollar los mandatos legales contenidos en la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la Igualdad de Mujeres y Hombres en el Territorio Histórico de Gipuzkoa. En concreto, los vinculados con el Capítulo IV, relativo a la promoción de la igualdad para caminar hacia un modelo social de cuidados dignos y universales, en el que se establece que el departamento de la Diputación Foral de Gipuzkoa al que se le atribuyen las funciones y competencias en materia de política social y el Órgano para la Igualdad de mujeres y hombres adoptará, entre otras, algunas de las siguientes medidas: la promoción de la articulación de debates y la elaboración de propuestas desde perspectivas feministas que permitan promover un modelo de cuidados dignos para Gipuzkoa; favorecer el derecho a recibir cuidados de todas las personas garantizando la promoción de la autonomía de las personas que los reciben y la puesta en marcha de medidas que prioricen la no reproducción de modelos de cuidados de base familiar sostenidos por las mujeres; y facilitar y dignificar las condiciones en las que las personas cuidadoras no profesionales ejercen las tareas de cuidado, apoyando el bienestar y demandas de los y las cuidadoras familiares y promoviendo un reparto más equitativo de los cuidados en el seno de los hogares.

Era berean, eta foru esparru arauemaile horretan bertan, ezartzen da ezen Gipuzkoako Foru Aldundiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoaren betebeharretako

Así mismo y en este mismo marco normativo foral, se establece que algunas de las obligaciones del Órgano para la Igualdad de mujeres y hombres de la Diputación Foral de Gipuzkoa son el

batzuk direla udal mailan sustapen neurriak ezartzea, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak garatzeko baldintza egokiak sortzeko (8.2. b) artikulua), eta gizarte eta erkidego baliabide eta zerbitzuak sortu eta egokitzeko proposamena egin eta bultzatzea, emakumeen eta gizonen bizitza pertsonala, zein familia eta lan bizitza bateratu eta zainketan erantzunkidetasuna sustatzeko (8.3. e) artikulua).

Azkenik, proiektu hau lerrokatuta dago Gipuzkoako emakumeen eta gizonen Berdintasunerako III. Foru Planean (2021-2023) hartutako konpromisoetako batzuekin. Zehazki, HE.13 helburuarekin, zeina honi buruzkoa baita: "GFAren konpromisoa emendatzea zainketen horniduran eta kontziliazio erantzunkidean".

Horregatik guztiagatik, Gipuzkoako Foru Aldundiak beharrezkotzat jo du abian jartzea prozesu bat, zertarako eta, herritarrek, oro har, eta, zainketak ematen parte hartzen duten eragile guztiek, bereziki, aukera izan dezaten zainketen inguruko beren sentsibilizazioa eta ezagutza areagotzeko, emakumeen eta gizonen berdintasunaren ikuspegitik. Hori guztia, helburutzat hartuta aurrera egitea zainketen demokratizazio eta bidezko birbanaketarako baldintzak sortzen Gipuzkoako Lurralde Historikoan.

Hori guztia egin ahal izateko, erabaki da laguntza tekniko bat kontratatzea.

2. KONTRATUAREN OBJEKTUA

Proiektu bat diseinatzea eta garatzea, zainketen gizarte balioa areagotuko duena zainketa horiei buruzko sentsibilizazioaren eta ezagutza hobetzearen bidez, aurrera egin dadin zainketen demokratizazioan eta bidezko birbanaketan, genero eta erantzunkidetasun ikuspegitik, Gipuzkoako Lurralde Historikoan.

3. EGIN BEHARREKO LANAK

Helburu hori lortzeko, eginkizun hauek bete beharko dira:

establecimiento de medidas de fomento que creen las condiciones adecuadas para el desarrollo de las políticas para la igualdad de mujeres y hombres a nivel municipal (artículo 8.2 b) y el impulso y la propuesta para la creación y adecuación de recursos y servicios socio-comunitarios tendentes a favorecer la corresponsabilidad en el cuidado y la conciliación de la vida personal, familiar y profesional de mujeres y hombres (artículo 8.3 e).

Finalmente, este proyecto está alineado con algunos de los compromisos adoptados en el III Plan para la Igualdad de mujeres y hombres en Gipuzkoa (2021-2023). Específicamente con el Objetivo OE13 referido a "Incrementar el compromiso de la DFG con la provisión de los cuidados y la conciliación corresponsable".

Por todo lo expuesto, desde la Diputación Foral de Gipuzkoa se ha visto la necesidad de poner en marcha un proceso para que la ciudadanía en general y, en particular, el conjunto de agentes implicados en la provisión de los cuidados, puedan aumentar su sensibilización y conocimiento en torno a los cuidados desde la perspectiva de la igualdad de mujeres y hombres. Todo ello con la finalidad de avanzar en la creación de condiciones para la democratización y redistribución justa de los cuidados desde la perspectiva de género en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Para que todo ello pueda ser posible se ha decidido contratar una asistencia técnica.

2. OBJETO DEL CONTRATO

Diseñar y desarrollar un proyecto que aumente el valor social de los cuidados a través de la sensibilización y la mejora del conocimiento sobre los cuidados, para avanzar en su democratización y redistribución justa desde la perspectiva de género y de corresponsabilidad en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

3. TRABAJOS A REALIZAR

Para la consecución de este objetivo, deberán realizarse las siguientes funciones:

1.- Gipuzkoako zainketen beharrei, pertzepzioari eta konponbideari buruzko ezagutza hobetzea ahalbidetuko duten analisiak planifikatu, diseinatu eta lantzea, genero ikuspegi intersekzionaletik begiratuta.

- Mendekotasun egoeran dauden pertsonak **zaintzeari buruz** eta haurrak eta nerabeak hazteari buruz **Gipuzkoako herritarrek duten pertzepzioaren eta iritziaren analisi bat** diseinatu eta egitea.

- **Zaurgarritasunik handieneko egoeran dauden pertsonen edo familien kolektibo espezifikoetan** (zaintzaile gazteak, guraso bakarreko familiak, landa-eremuetako zaintzaileak...), **zainketa-premien analisi bat** diseinatu eta egitea.

2.- Komunitate eremuan genero ikuspegitik garatutako zainketako jardunbide egokiak, jarduketak eta esperientziak identifikatu eta zabaltzea.

- **Komunitate eremuan genero ikuspegitik garatutako zainketako jardunbide egokien, jarduketen eta esperientzien bilduma bat** egitea genero ikuspegitik, Gipuzkoan, Euskadin, estatuan edo nazioartean, zeintzuen egokitzapena interesgarria izan bailiteke Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat eta Lurraldeko gainerako erakunde eta gizarte eragileentzat.

- **Mapa edo direktorio interaktibo bat diseinatu eta garatzea, zeinak edukiko baititu komunitate eremuan** genero ikuspegitik **garatutako zainketako jardunbide egokiak, jarduketak eta esperientziak,** bilduak izango direnak errazago identifikatu eta ezagutu ditzaten erakundeek, gizarte eragileek eta herritarrek, oro har.

1.- Planificar, diseñar y elaborar los análisis que van a permitir mejorar el conocimiento, desde la perspectiva de género interseccional, sobre las necesidades, percepción y resolución de los cuidados en Gipuzkoa.

- Diseñar y elaborar un **análisis de la percepción y opinión de la ciudadanía de Gipuzkoa en relación al cuidado** de personas en situación de dependencia y la crianza de las niñas, niños y adolescentes.

- Diseñar y elaborar un **análisis de las necesidades de cuidado en colectivos específicos de personas o familias en situación de mayor vulnerabilidad** (personas cuidadoras jóvenes, familias monoparentales, personas cuidadoras en zonas rurales...).

2.- Identificar y difundir buenas prácticas, actuaciones y experiencias de cuidado desarrolladas en el ámbito comunitario desde la perspectiva de género.

- Elaborar una **recopilación de buenas prácticas, actuaciones y experiencias de cuidado en el ámbito comunitario desde la perspectiva de género** en Gipuzkoa, en Euskadi, a nivel estatal o internacional, y cuya adaptación pudiera ser de interés para la Diputación Foral de Gipuzkoa y resto de instituciones y agentes sociales del Territorio.

- **Diseñar y desarrollar un mapa o directorio interactivo que contenga las buenas prácticas, actuaciones y experiencias de cuidado en el ámbito comunitario** desde la perspectiva de género recopiladas para facilitar su identificación y conocimiento por parte de las instituciones, agentes sociales y ciudadanía, en general.

3.- Zainketen tokiko ekosistemen diseinua eta garapena identifikatu eta bultzatzea, zeintzuek inkorporatuko baitute genero ikuspegia, eta balioko baitute aurrera egiteko, haien banaketa eta bidezko antolaketa batean.

- **Topaketak** diseinatu eta antolatzea, **hausnarketa partekatua egiteko, eta** komunitate eremuan berdintasunaren ikuspegitik garatutako zainketa-**esperientziak trukatzeko**, adituek eta esperientzia horietan tarteko diren eragileek emanda.

- **Egindako gogoetak eta esperientzia-trukea sistematizatzea, eta orientabideak prestatzea,** zeintzuk baliagarriak izango baitira, genero eta erantzunkidetasun ikuspegitik, bereziki zainketa-eredu berri baten garapenean tarteko diren foru departamentuentzat, udalentzat eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko eragile komunitarioentzat.

- **Aholkularitza-zerbitzu bat ematea**, zeinak erraztuko baitu genero ikuspegitik laguntzea foru eta toki mailan bultzatutako zainketen tokiko ekosistemen diseinuan eta garapenean.

- **Zainketen gizarte balioa areagotuko duen tokiko ekimen bat identifikatu eta diseinatzea, komunitate eremuko zainketei buruzko gizarte sentsibilizazioaren bidez, genero ikuspegitik**, zeinak balioko baitu erreferentziazko esperientzia gisa antzeko beste ekimen batzuk garatzeko.

- **Txosten bat prestatzea**, egindako lanaren berri emango eta ebaluatuko duena.

4.- Beste eginkizun orokor batzuk aipatutako lanei erantzuteko:

3.- Identificar e impulsar el diseño y desarrollo de ecosistemas locales de cuidados que incorporen la perspectiva de género y sirvan para avanzar en una distribución y organización justa de los mismos.

- Diseñar y organizar **encuentros para la reflexión compartida y el intercambio de experiencias** de cuidados en el ámbito comunitario desarrolladas desde la perspectiva de igualdad, ofrecido por personas expertas y por los agentes involucrados en estas experiencias.

- **Sistematizar las reflexiones y el intercambio de experiencias realizadas y elaborar orientaciones** que desde la perspectiva de género y la corresponsabilidad resulten de utilidad especialmente para los departamentos forales involucrados en el desarrollo de un nuevo modelo de cuidados, los ayuntamientos y los agentes comunitarios del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

- **Prestar un servicio de asesoramiento** que facilite acompañar, desde la perspectiva de género, el diseño y desarrollo de ecosistemas locales de cuidados impulsados a nivel foral y local.

- **Identificar y diseñar una iniciativa local que aumente el valor social de los cuidados a través de la sensibilización social sobre los cuidados en el ámbito comunitario desde la perspectiva de género,** que sirva como experiencia referencial para el desarrollo de otras iniciativas similares.

- **Elaborar un informe** que dé cuenta y evalúe el trabajo realizado.

4.- Otras funciones generales para responder a los trabajos mencionados:

- Proiektuan zehar egiten diren bilerei dagokienez, gai zerrendak eta dokumentazioa prestatzea, deialdiak egitea, bilerak dinamizatu eta koordinatzea, eta bilera guztietako aktak egitea.

- Berdintasunerako Organoari laguntzea, aholkatzea edo erraztea abian jarritako ekimenen emaitzak aurkezten, barnean zein publikoki; bereziki, zainketen analisiekin eta mapa interaktiboarekin lotutako ekimenenak.

- Proiektu osoan zehar, Gipuzkoako Foru Aldundiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoarekin koordinatzea, eta proiektuaren aurrerapenaren berri ematea.

- Gaiarekin zerikusia duten sektore akademiko, instituzional eta sozialeko adituekin eta eragileekin harreman eta komunikazio esparru bat ezartzea.

- Eragile adituekin eta sektore akademiko, instituzional eta sozialeko ordezkariekin lankidetza eta koordinazioa bermatzea.

5.- Azkenik, eta lan osoa aurrera eramateko moduari dagokionez, baldintza hauek bete beharko dira:

- Proiektuan zehar sortzen eta erabiltzen diren dokumentuak argiak, ulergarriak eta bisualki erakargarriak izan daitezela lortzea.

- Proiektuaren azken produktuak (analisia, mapa interaktiboa, orientabideak eta txostena) bi hizkuntza ofizialetan prestatzea.

- Con respecto a las reuniones que se celebren a lo largo del proyecto, preparar los órdenes del día y la documentación, realizar las convocatorias, dinamizar y coordinar las reuniones y levantar las actas de todas ellas.

- Acompañar, asesorar y/o facilitar al Órgano para la Igualdad la presentación, tanto internamente como públicamente, de los resultados de las distintas iniciativas puestas en marcha, en particular, las vinculadas con los análisis y el mapa interactivo de cuidados.

- Durante todo el proyecto, coordinarse con el Órgano para la Igualdad de mujeres y hombres de la Diputación Foral de Gipuzkoa y dar cuenta del progreso del proyecto.

- Establecer un marco de relación y comunicación con personas expertas y agentes del sector académico, institucional y social relacionadas con el tema.

- Garantizar la colaboración y coordinación con los agentes expertos y representantes del sector académico, institucional y social.

5.- Por último, y respecto a la forma de llevar a cabo la totalidad del trabajo, se deberán cumplir los siguientes requisitos:

- Hacer que los documentos que se generen y utilicen a lo largo del proyecto sean claros, comprensibles y visualmente atractivos.

- Elaborar los productos finales del proyecto (análisis, mapa interactivo, orientaciones e informe) en las dos lenguas oficiales.

Donostia, 2022ko maiatzaren 9a / San Sebastián, 9 de mayo de 2022

Berdintasuneko goi-mailako teknikaria / Técnico superior de igualdad

Laura Gómez

Sin./Fdo.: Laura Gómez Hernández.